

OLAZTIKO UDALEKO KONTULARI-EKONOMILARI LANPOSTUA ALDI BATERAKO BETETZEKO OINARRI ARAUTZAILEAK

1.- Xedea.-

Deialdi honen helburua da Olaztiko Udalerako kontulari-ekonomilari bat aldi baterako eta administrazio-araubidean kontratatzea, lanpostuko funtzionario titularra zerbitzu-eginkizunetan dagoen bitartean.

II.- Kontratazioaren baldintzak.

-Kontratuaren iraupena: Lanpostuko titularra lanera berriro itzuliko den edo ez baldintzatuko du kontratuaren iraupena.

-Probaldia: Bi hilabeteko probaldia ezartzen da, eta bitarte horretan Udalak kontratua suntsiarazten edo hutsaltzen ahalko du, Udalarari iruditzen bazaio lanpostuaren zereginak ez direla berak nahi bezala bete.

-Lanaldia: Olaztiko Udaleko langileentzat oro har ezarritako lanaldia izango du. Edonola ere, administrazio organo eskudunek noiznahi aldatzen ahalko dute, zerbitzuaren premiei erantzuteko.

-Lansaria: Honako lansari hauek izango ditu lanpostuak: Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuan eta 1984ko uztailaren 4ko Lansarien Behin-behineko Erregelamenduan eginiko sailkapeneko B mailari dagozkionak, baita esleitzen zaizkion osagarriak ere, baldin eta administrazio kontratatzailearen plantilla organikoan ezarrita badaude.

-Eginkizunak: Eginkizun hauek bete behar dira, besteak beste: arloko espediente guztien kudeaketa administratiborako zeregin guztiak gauzatzea, lan administratiboak indarreko legeak bete ditzan eta modu egokian eta legezko bideetatik aurkez dadin; Udalbatzari, zuzendaritza-taldeari eta gainerako arduradunei etengabeko aholkularitza pertsonala ematea; eta laguntza ematea jardueren koordinazio, ikuskapen eta bultzadan eta arloko kudeaketa tekniko-administratiboan. Kontratutako pertsonak diruzaintzaren eta Ekonomia eta Kontabilitate Arloko arduradunaren eginkizunak beteko ditu, besteak beste, honako hauek:

1. Ekonomi, finantza eta aurrekontu kudeaketan aholkuak ematea. Txostenak prestatzea, aurrekontuaren proiektuez, zerbitzu berrien bidezotasunaz eta zerbitzu horien ekonomi eta finantza oihartzunaren neurketaz.

2. Udal kontabilitateaz arduratzea eta hura aurrera eramatea. Lan horren barruan sartzen da aurrekontuko eta aurrekontuz kanpoko gastuen eta diru-sarreraren gaineko manamenduak ematea.

3. Kontabilitateko zereginak, kontu orokorrak prestatzea eta aurrekontua likidatzea.
4. Diruzaintzako planak prestatzea, esleitutako kobrantza eta ordainketa lanak aintzat hartuta, eta toki entitatearen funtsak, baloreak eta salgaiak maneiatzea eta gordetzea.
5. Udal langileen kontratazioek eta haien kudeaketak eragindako betebeharrak fiskalak eta sozialak betetzea. Lansariak eta gizarte-aseguruak egitea.
6. Udal-zergen eta bilketa-zerbitzuen likidazioa.
7. Orobat, administrazio deitzaileko gobernu organo eskudunek esleitzen dizkioten zeregin ekonomiko eta finantzarioak.

III.- Izangaiek bete beharreko baldintzak.

Eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean (2020ko martxoaren 4an), izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Espainiarra izatea, edo Europar Batasuneko beste estatu batekoa edo, Europar Batasunak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunak direla medio, langileen zirkulazio librea aplikatzen den eremuko estatu batekoa.
Espainiarren eta lehen aipatu diren estatuetakoa herritarren ezkontideek edo legez eraturiko izatezko bikotekideek ere hartzen ahalko dute parte, zuzenbidez bereziak ez badaude, baita haien ondorengoek eta haien ezkontideenek ere, baldin eta bi ezkontideak zuzenbidez bereziak ez badaude eta ondorengoak 21 urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanez gero, haien bizkar bizi badira.
- b) Hamasei urte beteak izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko ezarritako adina gainditua ez izatea.
- c) Lanpostuaren eginkizunetan aritzeko gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.
- d) Funtzio publikoan aritzeko ezgaitua edo gabetua ez izana, ez eta administrazio publiko baten zerbitzutik berezia ere.

Enpresa Zientzietako diplomatu tituluaren edo horren baliokidearen jabe izatea, edo arlo ekonomikoaren, enpresaren, kontabilitatearen edo finantzen graduarena (Gizarte eta Zuzenbide Zientzien Jakintza Arloa); edo Zuzenbideko graduarena; edo Ekonomiako, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako, Enpresa Zientzietako, edo Zientzia Aktuarial eta Finantzarioetako lizentziaren lehenengo hiru kursoak gainditu izana, urriaren 10eko 1272/2003 Errege Dekretuaren lehen xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat, edo, bestela, titulua lortzeko eskubideak ordaindu dituela frogatzen duen gordekina, probetan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean. Atzerrian lorturiko tituluak izanez gero, aipatu epea betetzen den egunean, haren homologazioa frogatzen duen agiriaren jabe izatea.

f. Euskararen ezagutzari dagokionez, C1 hizkuntz eskakizuna duela frogatzen duen titulua izatea. Ezagutza hori frogatzeko, Hizkuntza Eskola Ofizial batek emandako gaitasun agiria edo ofizialki baliokidetzat jotzen den titulazioa aurkeztu beharko da.

Bestela, izangaiak proba bat gainditu beharko du, C1 hizkuntz eskakizuna duela frogatzeko.

*** Oinarri honetako e) letran eskatzen den titulazioaren betekizuna agiri bidez egiaztatu beharko da parte hartzeko eskabidea aurkezten den unean.**

*** Deialdi honen III. oinarrian jasotako betekizun guztiak, probetan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunari buruzkoak ez ezik, prozedura osoan eta kontratazio-aldian ere bete beharko dira.**

IV.- Hautapen prozedura eta probak.

Hautagaiak Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bidez hautatuko dira. Zerbitzu horrek hautagaien zerrenda egingo du udal honek eskaintza igortzen duen egunean enplegu-eskatzaile gisa izena emanda dauden pertsonen artean, eta Udaleko Erregistroan parte hartzeko eskabidea aurkeztuko du horretarako ezarritako epean.

Nolanahi ere, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskubidea izango dute, horretarako baldintzak betez gero, enplegu agentzia batean enplegu-eskatzaile gisa daudela edo lana hobetzeko eskabidea egina dutela kreditatzen duten izangaiek.

V.- Epaimahai kalifikatzailea.

5.1.- Hauexek izango dira kalifikazio epaimahaiko kideak:

-Lehendakaria: Roberto Martínez Mendia, Olaztiko alkatea.

-Ordezkoa: Joseba Vizuite Ascargorta, Olaztiko alkateordea.

-Bokala: Nafarroako Udalerri eta Kontzejuen Federazioak izendatzen duena.

-Ordezkoa: Nafarroako Udalerri eta Kontzejuen Federazioak izendatzen duena.

-Bokala: Maialen López Cambra, Altsasuko udaletxeko kontuhartzailea

-Ordezkoa: Izendatzeke

-Bokala-idazkaria: Sandra Martínez Gutiérrez Olaztiko Udaleko idazkaria.

-Ordezkoa: Izendatzeke

5.2. Kalifikazio epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, eta organo dei egileari horren berri eman, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan abstentziorako aipatzen diren egoeretako batean badaude.

Izangaiek, halaber, zilegi dute mahaikideak errefusatzeko, inguruabar horietako bat gertatzen denean.

5.3.-Epaimahaia eratu eta haren jarduketak balioa izateko, kide guztien erabateko gehiengoa bildurik izan beharko da. Halaber, epaimahaiaren eraketak eta jardunak balio izateko, mahaiburuak eta idazkariak edo haien ordezkoek bertan egon beharko dute.

5.4.-El. Deialdiko oinarriak ulertu eta aplikatzerakoan sortzen diren afera guztiak gehiengoz erabakiko ditu epaimahaiak.

VI.- Hautapen-prozesuaren garapena eta balorazioa.

6.1.- Hautaketa merezimendu-lehiaketa bidez egingo da, honako arau hauen arabera:

1.- OPOSIZIOALDIA (gehienez ere 80 puntu):

Oposizioaldiak bi ariketa izango ditu. Ahal dela, biak egun berean egingo dira, onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda onartzen duen Alkatetzaren Ebazpenean adierazitako lekuan eta orduan. Udaletxeko iragarki-oholean eta Udalaren webgunean (www.olazti.com) argitaratuko da.

Deialdi bakarra egingo da eta izangaiek nortasun agiri nazionala edo nortasun agiri baliokidea aldean dutela agertu beharko dute. Bertaratzen ez diren izangaiek baztertuta geratuko dira. Ariketak honela egingo dira:

1.1.-. Proba teorikoa. Galdera sorta bati edo test bati erantzun beharko zaio, honako gai hauei buruz:

--6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.

-2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa.

-270/1998 Foru Dekretua, irailaren 21ekoa, aurrekontuei eta gastu publikoari buruzkoa. Foru Dekretu horrek Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 27/1995 Foru Legea aurrekontuko egituren arloan garatu zuen.

-234/2015 Foru Dekretua, irailaren 23koa, Nafarroako toki entitateen aurrekontuen egiturari buruzkoa.

-272/1998 Foru Dekretua, irailaren 21ekoa, Nafarroako Toki Administrazioarako Kontabilitate Jarraibide Orokorra onesten duena.

-2/2012 Lege Organikoa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.

-27/2013 Legea, abenduaren 27koa, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzkoa.

-251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duena.

-158/1984 Foru Dekretua, uztailaren 4koa, aldatu zuen martxoaren 29ko 21/2017 Foru Dekretua Nafarroako Administrazio Publikoetako langileriaren ordainsariak arautzen dituena.

* Epaimahaiak erabakiko du proba hori egiteko gehienezko denbora. Proba honetan gehienez ere 40 puntu lortzen ahal dira eta oposiziotik bazterturik geldituko dira 20 puntu eskuratzen ez duten izangaiek.

1.2.- Proba praktikoa: Ekonomia-, finantza-, aurrekontu- eta kontabilitate-kudeaketari buruzko kasu praktikoa bat edo batzuk azaldu beharko dira.

Proban ezin izango da testu legalik erabili; bai, ordea, finantzekoak ez diren kalkulagailuak.

*Proba hau egiteko denbora epaimahaiak erabakiko du, ariketen edukia zein den ikusita. Proba honetan gehienez ere 40 puntu lortzen ahal dira eta oposiziotik bazterturik geldituko dira 20 puntu eskuratzeko ez duten izangaiak.

1.3- Proba praktikoa egin ondoren, plikak irekitzeko ekitaldi publikoa non, noiz eta zein ordutan egingo den ezarriko da. Horren ondoren, Olaztiko Udaleko iragarki-taulan eta webgunean argitaratuko da izangai bakoitzak lortutako puntuazioa. Probara aurkeztutako pertsonen kopuruak aukera ematen badu, ariketak egiten diren egunean bertan egingo da ekitaldi hori, aldez aurretik jakinaraziko den orduan.

1.4.- Dena den, proba hau izangai bakar batek ere gaituko ez balu edota izangai hautatuak deia egin duen Administrazioak kontratatzea nahiko ez balu, Administrazio horrek hautespenezko prozesuan azkeneko puntuazioaren hurrenkerari hertsiki jarraituz probetako bat gaitu duten izangaiak kontratatu ahalko ditu.

1.5.- Hautapen probak egiteko, eskaera egin duten minusbaliatuentzat bidezkoak diren denbora eta baliabide egokitzapenak egingo dira, eskabidean azaldutakoaren arabera.

2.- LEHIAKETALDIKO BALORAZIOA (GEHIENEZ ERE 20 PUNTU).

Deialdiaren xede den lanpostuaren antzeko eginkizunak betetzea baloratuko da, eskainitakoaren maila berean edo handiagoan, eta honako zerrenda honen arabera bereiziko da:

-Nafarroako administrazio publiko batean lanean egindako zerbitzu urte bakoitzeko, baldin eta lanposturako eskatu bada deialdi honetako 3. oinarriko e letran adierazitako titulazioaren bat: 2 puntu; gehienez 20 puntu.

- Nafarroako administrazio publiko batean lanean egindako zerbitzu urte bakoitzeko, baldin eta lanposturako eskatu bada deialdi honetako 3. oinarriko e letran adierazitako titulazioaren bat: 2 puntu; gehienez 10 puntu.

- Zentro edo enpresa pribatu batean lanean egindako zerbitzu urte bakoitzeko, baldin eta lanposturako eskatu bada deialdi honetako 3. oinarriko e letran adierazitako titulazioaren bat: 2 puntu; gehienez 5 puntu.

***Baloratzekeo aipatu irizpideak aplikatzeko, arau hauek hartuko dira kontuan:**

-Baloratu behar den urte kopurua osoa ez bada, proportzioan dagokiona emango zaio.

-Baremoko multzo berean sartutako zerbitzuak batera egin badira, ez dira bi aldiz kontatuko.

-Kontuan hartuko dira, soilik, eskabideak aurkezteko unean jatorrizko agiriaren edo kopia konpultsatuen bidez frogatzen diren merezimenduak.

* Egindako zerbitzuak toki-erakundeko edo herri-administrazioko langileen zuzendariak edo buruak emandako ziurtagirien bidez egiaztatu beharko dira, eta ziurtagiri horietan honako hauek jaso beharko dira nahitaez:

-Lantokia.

-Lanpostua.

-Zerbitzuen iraupena, behar bezala adierazita hasiera eta bukaera egunak eta guztira zenbat egun diren.

* Enpresa pribatua emandako zerbitzuen kasuan, ziurtagiri horretaz gain, Gizarte Segurantzaren Diruzaintzak emandako lan-bizitzaren txostena aurkeztu beharko da.

* Balorazioa egiteko deialdi hau onartu arte emandako zerbitzuak hartuko dira kontuan.

* Nahikoa izango da dokumentazioaren kopia sinpleak aurkeztea, baina aurkeztutako datuak edo dokumentuak zehaztugabeak edo faltsuak badira, dagozkion erantzukizun penal, zibil edo administratiboak eskatuko dira.

*Deialdi honetako izangai guztiek, merezimenduak dituztela uste badute, oinarri hauetako zehaztapenei jarraikiz, agiri bidez frogatu behar dute, deialdirako onarpen eskaera egiten duten momentuan.

6.2. Izangaien kalifikazioa bukatu, epaimahaiak argitaratu du probak gainditzen dituzten zerrenda, guztira lorturiko puntu hurrenkerari jarraikiz, izangai bakoitzak lehiaketaldian eta oposizioaldian lorturiko kalifikazioak batuta; halaber, puntuaziorik altuena duen izangaiaren aldeko kontratazio proposamena egingo du.

Proposamen hori argitaratu beharko da Udalaren weborrian eta iragarki-taulan, eta loteslea izango da administrazio deitzailearentzat.

6.3.- Proposatutako pertsonak Olaztiko Udaleko Erregistro Orokorrean zinpeko adierazpena aurkeztu beharko du, bost (5) egun naturaleko epean, banakako jakinarazpena egiten denetik aurrera. Adierazpen horretan, adierazi beharko du ez dagoela funtzio publikoak betetzeko ezgaituta edo zigortuta, eta ez dela edozein administrazio publikotako zerbitzutik banandu.

6.4.- Aipatu epearen barnean, eta aski arrazoituriko ezinbesteko kasuak izan ezik, aipatu agiriak aurkezten ez badira ezin izango da kontratatu, eta kontrataziorako izangaien zerrendatik kanpo geratuko da.

6.5.-. Aurreko atalaren kasuan, edo kontratazioa egin ondoren, plaza berriro hutsik geratzen bada, 6.2 oinarrian aipatzen den gaindituen zerrendan jarraian agertzen den izangaiarekin beteko da, eta aurreko ataletan adierazitako moduan jardungo da pertsona horrekin.

VII.- Kontratazioa.

7.1. Hautapen prozesua bukatu eta administrazio deitzaileak aldi baterako administrazio-kontratua eginen dio izangaiari, kontulari-ekonomilari lanpostuan aritzeko; kontratua formalizatuko da eta alta emango zaio Gizarte Segurantzari.

7.2. Kontrataturiko pertsonak 7 egun natural izango ditu, kontratazio proposamena jakinarazten zaionetik aurrera, kontulari-ekonomilariaren lanpostuan hasteko. Aipatu

epean, eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, jabetza hartzen ez badu, eskubide guztiak galduko ditu. Halakoetan, 6.5 oinarrian ezarritakoari jarraituko zaio.

7.3.- Era berean, lanpostuari uko egiten bazaio, Olaztiko Udaleko alkate-udalburuak onartutako aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendan agertzen diren pertsonekin bete ahal izango da.

VIII.- Kontratazio zerrenden kudeaketa.

8.1. Kontratazio zerrendek lau urteko iraunaldia izanen dute, salbu epe laburragoan agortzen badira edo beste deialdi bat egiten bada.

8.3. Olaztiko Udaleko burutzaren ardura izanen da zerrenda kudeatzea.

8.3.- Behin betiko zerrenda onartu ondoren, izangaiei dei egingo zaie puntuazioaren hurrenkera zorrotzaren arabera.

8.4. Deiak egiteko arau orokorrak.

-Harremanetan erraz jarri ahal izateko, izangaiek gutxienez harremanetarako telefono bat (beste telefono batzuk ere jakinaraztea eragotzi gabe) eta posta elektronikoko helbide bat jakinarazi beharko dituzte, eta informazio hori etengabe eguneratuta eduki beharko dute.

-Pertsonak deitzeko aurreko ataletan ezarritako lehentasun-irizpideak hartuko dira kontuan.

-Kontratua telefonoz eskaintzen zaion izangaiari hiru dei, bederen, egingen zaizkio emandako komunikazio-bideen bitartez, bi eguneko epean.

-Dei bakoitzaren idatzizko oharra egingen da, gorabeherak, eguna eta ordua aipaturik. Izangaiarekin harremanetan jarri eta kontratazio-eskaintza bat egin ondoren ez badu erantzuten, uko egin duela ulertuko da, eta 6.2 atalean xedatutakoa aplikatuko zaio.

-Izangai batekin harremanetan jartzea lortu ez bada, zerrendaren hurrengoarekin edo hurrengoekin kontaktatuko da, lanpostua edo lanpostuak bete arte. Harremanetan jartzerik izan ez duten izangaiek zerrendan zuten postuari eutsiko diote.

-Deiak amatasunaren edo adopzioaren lizentzia kasuetan: Amatasunaren edo adopzioaren lizentzia hartzeko ezarrita dagoen epearen barruan aldi baterako kontratu bat sinatzeko deia jaso eta kontratua onartzen duten izangaiei lanpostu hori erreserbatuko zaie lanean benetan hasten diren arte, orduan sinatuko baitute kontratua. Kontratua onartzen ahalko dute, bakar-bakarrik, baldin eta, kontratuarentzat ezarritako iraupena ikusita, aukera baldin badute lanpostuan benetan hasteko. Lanpostuan sartuko dira amatasunaren edo adopzioaren lizentziarako ezarritako epea bukatzen den egunean, edo lehenago, interesdunak eskatzen badu, baina nolana ere, erditu ondoren amarentzat ezarritako nahitaezko atsedendia bukatuta.

8.5.- Kontratatzeko eskaintzari uko egitea. Izangairen batek eskaini zaion lanpostuari uko egiten baldin badio, zerrendaren bukaerara pasako da, ondoko egoera batean dagoela frogatu ezean:

1.- Indarrean dagoen izendapen, kontratu administratibo edo lan kontratu batengatik horretara behartua egotea.

2.- Aldi baterako ezintasun egoeran izatea edo umea izan edo adoptatzeagatik lizentzia izatea. Arrazoi hori dela-eta kontratu bati uko egiten diotenak ezin izango dira berriro deitzeko moduan egon, harik eta uko egitea justifikatu zuen egoera amaitu dela behar bezala egiaztatzen duten arte.

3.- Hiru urte baino gutxiagoko semea edo alaba, norberak izandakoa zein adoptatua, zaindu beharrean egotea.

4.- Zaindu behar badu bigarren gradura arteko odol edo ezkontza bidezko ahaide bat, adina, istripua edo eritasuna dela-kausa bere burua ezin gobernatu duena.

5.- Izangaia ezkondu berria bada edo, Bikote Egonkorrentzako Berdintasun Juridikoari buruzko uztailaren 3ko 6/2000 Legearen arabera, balio bereko egoeran sartu berria, hori gertatu ondoko edo gertatu aurreko hamabortz egun naturaletan uko eginez gero lanpostuari.

Aurreko idatz-zatian jasotako kasuetan, izangaiek zerbitzua emateko moduan daudela jakinarazi beharko dute. Jakinarazpen hori egin bitarte, izangaia ez dira deitzeko moduan izango, eta ez zaie inolako lanposturik eskainiko sartuta dauden zerrendetatik.

Atal honetan adierazitako egoeretako batean dauden izangaiek 3 egun naturaleko epea izango dute, uko egiten dioten lanpostua eskaintzen zaien egunetik, agiri bidez eta behar bezala justifikatzeko. Hala eginez gero, lanpostuari uko egin ziotenean zerrendan zuten toki berean jarraituko dute.

8.6. Zerrendetatik baztertzea.

Izangaia honako kasu hauetan geratuko dira zerrendatik kanpo:

- a) Eskaintako lanpostuari arrazoirik gabe uko egitea.
- b) Deia eginda lanpostua onartu ondotik, kontratua ez sinatzea, izangaiari egotzi beharreko arrazoi batengatik.
- c) Sinatutako kontratuari uko egitea, Administrazio Publikoan sartzeagatik egiten bada izan ezik.
- d) Probaldia ez gainditzea.
- e) Kontratua amaitzea, diziplinazko arau-hauste batengatik.
- f) Kontratua amaitzea gerora sortutako arrazoiak direla kausa, hain zuzen, kontratatzen den langilea lanpostuan aritzeko gaitasun edo egokitzapen faltagatik, horrek lanpostuak dituen eginkizunak eraginkortasunez betetzea galarazten duen errendimendu eskasa badakar.

XI. Errekurtsoak.

Deialdi honen, oinarrien eta aplikatzeko egintzen aurka ondoko errekurtsoetako bat aurkez daiteke, hautara:

a) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Administrazioarekiko Auzien Iruñeko Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori hasiko da errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunean.

b) Berraztertze errekurtsoa, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazi eta biharamunetik hasita.

c) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazten denetik hasita.

Epaimahaiaren egintzen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke Olaztiko alkatearen aurrean, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazten denetik hasita.

I. ERANSKINA. ESKABIDE-EREDUA

Deialdia, Olaztiko Udaleko kontulari-ekonomilari lanpostua aldi baterako eta administrazio-araubidean oposizio-lehiaketa bidez betetzeko.

Izen-abizenak:.....; Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia:.....; jaioteguna:..... ; jaioterria:; helbidea: kalea:.....; zenbakia:.....; pisua:.....; posta-kodea:.....; telefono finkoa:.....; telefono mugikorra:.....; zure aurrean agertu eta

AZALTZEN DUT:

- Ez dudala karguan aritzea galarazten didan eritasun edo akats fisiko edo psikikorik.
- Indarra duten xedapenetan ezarritako ezintasunik ez dudala.
- Ez naizela diziplina espedientearen bidez inongo administrazio publikoren zerbitzutik bereziaz izan, ez eta diziplinako kaleratzearen bidez bidalia ere, eta ez nagoela desgaitua eginkizun publikoak betetzeko.
- Badudala deialdian adierazten den titulazioa.
- Deialdian eskatzen diren baldintza guztiak eskaerak aurkezteko epea bukatzen den unean betetzen ditudala.
- Desgaitasuna dudala eta, beraz, azaltzen den egokitzapena eskatzen dudala, adierazten diren arrazoiengatik (Beste orri batean azaldu behar dira eskatzen diren egokitzapenak eta haietarako arrazoiak).
- Minusbaliatua naizela frogatzen duen agiria aurkezten dudala, erakunde eskudun batek emana.
- Eskabideari agiri hauen fotokopia konpultsatuak erantsi dizkiodala:
 - *Nortasun agiri nazionala.
 - *Eskatzen den titulazio akademikoa.
 - * Merezimenduak, lehiaketaldirako.
 - *Enplegu eskatzailearen txartela edo enplegua hobetzeko txartela.

Horrenbestez, iragarritako deialdian onartu izatea ESKATZEN DUT.

Olaztin, 2020ko.....(a)ren.....(e)an.
(sinadura)